



Nolako izan behar du jendaurrean lan egin nahi duen pertsonak? Zer baldintza bete behar ditu? Galdera horiei erantzuten die elkarrizketatuak, aholkularitza-enpresa batean lan egiten duen Amaia Zubizarretak.

Irudia: Silviu, Pixabay

Audioa entzun ondoren, aukeratu erantzun zuzena.

1. Adierazi jendaurreko lanpostu batean aritzeko aintzat hartze diren bi alderdiak.

- a) Enpresari buruzko ezagutza orokorra eta lanpostuari buruzko ezagutza espezifikoak.
- b) Lan egiteko gogoia eta curriculumak.
- c) Alderdi profesionala eta trebetasun pertsonalak.

2. Amaia Zubizarretaren ustez, zer egin behar da ongi komunikatzen jakiteko?

- a) Entzuleak gaiak dakiena kontuan hartuta hitz egin.
- b) Argi, koherentziaz komunikatu, entzuten jakinda.
- c) Ezer esan baino lehen entzuten jakin.



3. Zer esaten du Zubizarretak pazientziari buruz?

- a) Ulegarria dela batzuetan bezero batzuei modu txarrean erantzutea.
- b) Ikasi egin behar dela besteen larruan jartzen.
- c) Modu txarren aurrean, arnasa sakon hartzea gomendatzen du.

4. Zer dio Zubizarretak irribarreez?

- a) Irribarreak, besterik gabe, ez duela inor jatorrago egiten.
- b) Irribarrea eskaintzen duena jatorragoa iruditzen zaigula.
- c) Gaizki ikusia dagoela jatorrago iruditzeke gehiegizko irribarrea.

5. Alderdi fisikoaz aukeratu erantzun okerra, audioaren arabera.

- a) Enpresa batzuek jende lodia ez eskaintzeko eskatzen diete.
- b) Alderdi fisikoa eta adina multzo berean epaitzen dira.
- c) Lanpostuarentzako ezaugarri fisiko koherenteak dituztenak aukeratzen dira.

<https://labur.eus/BWxTP>

ERANTZUNAK

1-c, 2-b, 3-c, 4-b, 5-a

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Jendaurrean lan egin. Aurrez aurre pertsonekin lan egin.

Zer hartzen dute kontuan. Zeri erreparatzen edo begiratzen diote, zer hartzen dute aintzat.

Are gehiago. Zer esanik ez, oraindik gehiago.

Gaitasun pertsonalak. Norberaren trebetasunak, abilezia, jakintza...

Bai ala bai. Nahitaez, ezinbestean.

Erraz asaldatu daiteke. Erraz jar daiteke urduri, aisa larritu daiteke.

TRANSKRIPZIOA (00:03:08)

Esataria. Ba jendaurrean lan egin behar duten lagunak kontratatzen eta aukeratzen aritzen da Amaia Zubizarreta. Bera da ieTeam aholkularitza-enpresaren Donostiako selekzio-arduraduna. Amaia, egun on.

Amaia Zubizarreta (ieTeam). Egun on.

Esataria. Zuengana jotzen duten enpresek zer hartzen dute kontuan jendaurrean lan egiteko?

Amaia Zubizarreta. Orokorrean, edozein hautaketa-prozesu martxan jartzen dugunean, eta, eta bezero batekin kontaktuan jartzen garen momentuan, bueno, bi bloke edo bi, bi aspektu (alderdi) hartzen ditugu kontuan, ez? Alde batetik, ezagutza teknikoak, ez?, ba postuan postuko... Ba batzuk izango dira ezagutza tekniko espezifiko batzuk, baina gero baita ere, eta kasu honetan jende-aurrean lan egiteko lan bat baldin bada are gehiago, ba asko baloratzen dira gaitasun pertsonalak eta, eta konpetentzia pertsonalak, orokorrean.

Esataria. Zein konpetentzia motari buruz ari gara hitz egiten?

Amaia Zubizarreta. Alde batetik, bai ala bai pertsona horrek izan behar du komunikatzeko erraztasuna edo komunikatzeko gaitasuna. Hau da, gauzak erraz, eta argi eta koherentzia batekin transmititzeko, kontatzeko gaitasuna. Hor barruan sartuko genuke entzuten jakitea, ez?, edo entzuteko gaitasuna izatea. Bestalde, bueno ba, enpatia izatea baita ere eskatzen da, beharrezkoa da. Horrekin lotuta, oso lotuta, dago pazientzia izatea eta autokontrola izatea. Erraz asaldatu daiteke edo erraz erreakzionatu dezakegu ba parean daukagun pertsona batek [bat] modu txarrekin zuzentzen bada gu, gugana, edo bueno... Holako egoeretan arnasa, arnasa hartu sakon, eta zure lekuan mantentzea beharrezkoa izaten da. Eta gero, azkenik, da noski bueno ba, orokorrean jarrera positibo batekin lan egitea, irrifar (irribarre) batekin lan egitea... Denok nahiago dugu parean daukagun pertsona bat gugana zuzentzen bada, aurpegian irrifar bat marraztuta baldin badauka, nahiago dugu. Bai, jatorragoa irudituko zaigu pertsona, pertsona hori, eta noski, edukazioa izatea, ez?

Esataria. Fisikoa ez duzu aipatu.

Amaia Zubizarreta. Aber! Kontuan hartzen da fisikoa. Fisikoa eta adina talde iguanean (talde berean) sartuko nitzuke. Enpresa orok publiko konkretu bat dauka, sektore konkretu bati loturik egongo da... Orduan, guzti horrekin koherentzia bat mantendu behar du pertsona aurrean dagoen hautagai honek. Bai? Orduan...

Esataria. Adibidez, esan nahi duzu jende gaztearen arropa saltzen duten denda batean ba eskatuko dutela pertsona gazte bat agian, eta kontrakoa?

Amaia Zubizarreta. Hori da. Hori da.

Esataria. Eta fisikoari dagokionez, sumatzen duzue batzuetan diskriminaziorik? Ba agian enpresa batzuetan esaten dutelako "ba nahi dugu pertsona gihartsu bat..."

Amaia Zubizarreta. Um.

Esataria. Edo nahi dugu argala, ez dugu lodirik nahi. Edo nahi dugu ilea duen gizon bat edo ez dakit nolako begiak dituen emakume bat". Horrelakoak sumatzen dituzue hautaketa-prozesuetan?

Amaia Zubizarreta. Ez. Ke ba! (Ba ez!). Ez. Ez.